

35

Urte / Años

urkoa

Beti
zurekin

ZERBITZU OROKORRAK

Morlans, 13 behea
20009 Donostia
Telefonoa 943 468 956
idazkari@hurkoa.eus

LAGUNTZA-NEURRIAK

Morlans, 13 behea
20009 Donostia
Telefonoa 943 468 956
idazkari@hurkoa.eus

Gernikako Arbola Pasealekua, 16
20006 Donostia
Telefonoa 943 468 956

Ferrerias, 32 behea
20500 Arrasate
Telefonoa 943 770 938

Geltoki, 7
20301 Irun
Telefonoa 943 568 640

Kale Nagusia 60 behea
20720 Azkoitia
Telefonoa 943 468 956

EGUNEKO ZENTROA

Ntra. Sra. de las Mercedes
Nafarroa Etorb., 31
20013 Donostia
Telefonoa 943 293 111
cdmercedes@hurkoa.eus

AURKIBIDEA

4-5 Presidentearen gutuna

José Luis de la Cuesta

8-9 Hurkoa, 35 urte Gipuzkoako gizartearentzat lanean

José Emilio Lafuente

10-11 Zentzuz

Marta Álvarez de Arcaya

12-13 Beste era batera begiratzen ikastea ere bada zaintzea

Valentina Montero Vilar

14-15 Zainketak, laguntza eta beste zenbait kontu

Mari Mar Estella, Eva Quintano y Lidia Vicente

16-17 Arreta eta hazkundera

María Casla

18-19 Konpromiso etiko eta sozialaren adibide bikaina

Teo Alberro

20-21 Pertsonetikiko konpromisoari buruzko istorio bat

Begoña Zubimendi

22-23 Erreferentzia gizatasunean eta gizarte-eraldaketa

Lide Amilibia

24 35 urte jende zaurgarrienaren alde lanean

Maite Peña

GURE ALIANTZAK



HURKOA 2025



ARTATUEN KOPURUA

LAGUNTZA-NEURRIAK **615**

EGUNEKO ZENTROAK

Astelehenetik ostiralera **89**

Asteburuetan **48**

HAUSKORTASUNA **28**

Hauskor Programa **47**



PROFESIONALAK **67**

BOLUNTARIOAK **74**



FINANTZAKETA

EGUNEKO ZENTROAK

Diru-sarrerak **1.505.303,32€**

Gastuak **-1.520.026,78€**

Finantzaketa **73,50%**
publikoaren ehunekoa

HAUSKORTASUNA

Diru-sarrerak **200.776,77€**

Gastuak **-151.330,24€**

Finantzaketa **55,35%**
publikoaren ehunekoa

LAGUNTZA NEURRIAK

Diru-sarrerak **1.852.451,96€**

Gastuak **-1.848.660,29€**

Finantzaketa **79,26%**
publikoaren ehunekoa

NON GAUDE

Irún
Donostia
Tolosa
Azkoitia
Arrasate





35 URTE BETE DITUGU!

Donostiako Elizbarrutiko Caritasek sortu zuenetik —1990eko azaroaren 20an—, hau izan da Hurkoaren eginkizun nagusia: hauskortasun, desgaitasun, mendekotasun edo babesgabetasun egoeran dauden adinekoei edo gaixotasun mentala dutenei arreta, laguntza eta babes beharrezaneiei aurre egitea. Nola egiten dugun lan hori? Bada, agindu judizialei jarraikiz ezarritako laguntza-neurriak hedatuz eta egikaritzuz, Nuestra Señora de las Mercedesetako gure zentroan jendea artatuz eta arreta-programak eskainiz hauskortasun egoeran daudenei eta haien familiei. Horiek dira, hain juxtu ere, gure lantalde saiatuen eskuhartze eremuak. Boluntarioekin batera, talde horiek arduratzen dira gure xedea gauzatzeaz —“gizarte-berrikuntza eta bikaintasuna oinarri dituen ereduaren arabera, betiere pertsonak eta haien nortasuna eta balioak ardatz direla”, gure erakundearen xedeak

aldarrikatzen duenez.

Juan Carlos Maleten zuzendaritzapean bildu ditugu, memoria/aldizkari honetan, aurreko lorpenak, elkarriketak eta ekarpenak. Bihotzez eskertzen dugun «urtebetetze-oparia» da aitortza gure erakundean eta haren inguruan dihardugun guztiontzat.

2024ko ekitaldian, 750 pertsonatik gora artatu zituen Hurkoak: 615 laguntza-neurrien bidez, 95 eguneko zentroan eta 53 hauskortasun-arloan.

Bestalde, iaz ere zenbait topaketa egin genituen laguntza-neurriak eskaintzen ditugun estatu espainiarreko fundaziook, erkide ditugun zailtasunak identifikatu eta Estatuko Fiskaltza Nagusiari jakinarazteko. Bereziki eskertzekoa da, halaber, gure lantaldearen handitzea finantzatzeko —administrari bat eta gizarte-hezitzaile bat— Gipuzkoako Foru Aldundiarekin

hitzartu dugun akordioa. Izan ere, gaixotasun mental larriak dituztenen arretak areagotu egin zuen gure lan-karga, eta horretarako handitu behar genuen lantaldea. Aipatzekoak dira honako zera hauek ere: 2024tik 2027ra bitartean Hauskor hauskortasun-programa bultzatzen jarraitzeko Pasaiaiko Udalarekin sinatutako lankidetza-hitzarmena, 2023/24/25 urteetarako Gipuzkoako Esku-hartze Sozialarekin adostutako Eraginkortasun Orokorreko Hitzarmena. Laguntza Neurriak eta Hauskortasuna sailtako langile guztiei eragiten hitzarmen horrek, zeinak %12,90eko igoera aurreikusten baitu epe horretarako. Azkenik, MantTest programa jarri zen martxan Nuestra Señora de las Mercedesetako Zentroan, eta Konpongi enpresari esleitu zitzaizkion haren mantentze-lanetako batzuk. EDEk eta EMAUSEk babesten duten lanbideratze-enpresa da Konpongi.

Hurkoako patronatua osatzen dugun guztion izenean, bihoakie gure eskerrik beroena boluntario eta profesional guztiei, haien konpromisoa, ilusioa eta eskuzabaltasuna baitira gure xedea lortzeko baliabide nagusiak. Mila esker, halaber, hauskortasuna eta babesgabetasuna pairatzen dutenak eta haien sendiak artatzen eta babesten laguntzen diguten erakunde guztiei, batez ere Gipuzkoako Cáritasi eta Foru Aldundiari, baita Lares-i eta Hedatzen-i re, besteak beste.

Bide batez, gogorazten dizuegu berri egin dugula gure webgunea (<https://www.hurkoa.eus/>), baita informazio-orriak ere, eta orain itxura modernoagoa eta erakargarriagoa dutela.



José Luis de la Cuesta Arzamendi
Hurkoako presidentea eta Hurkoa Zainduz





Hurkoa: konpromisoa oinarri duen ibilbidea

2025ean betetzen ditu 35 urte Hurkoak. Zaurgarritasun-egoeran daudenekiko konpromiso irmoa izan du bereizgarri Fundazioaren ibilbideak, batez ere adina, desgaitasuna edo gaixotasun mentala dela medio erabakiak hartzeko eta duintasunez bizitzeko laguntza behar dutenekikoa. Azken hiru hamarkada eta erdi hauetan, ezinbesteko erreferentzia izan da irabazi-asmorik gabeko erakunde hau —Gipuzkoako Cáritasek sustatua— gizartearen eta familiaren babes-sarerik gabeko herritar askoren laguntzari, tutoretzari eta arretari dagokienez.

Sorreratik bertatik, argi askoa izan da Hurkoaren xedea: pertsona orok du zaindua, entzuna eta errespetatua izateko eskubidea, are gehiago egoera bereziki hauskorrean baldin badago. Araudi, gizarte- eta kultura-aldaketetara bikain egokitu da Hurkoa, betiere ikuspegi etikoa eta humanista gidari dituela eta jardueraren ardatz pertsona duela. Horixe da, izan ere, bere eginkizuna: bizi-kalitatea, adiskidetasuna eta hurbiltasuna eskaintzea.

2.500 lagunetik gora artatu ditu Hurkoak 35 urteotan; lan isila egin du, baina behar-beharrezkoa. Diziplina-alor ugaritako profesionalak jardun dira lanean —gizarte-lana, zuzenbidea, administrazioa, boluntariora...—, tinko eta abegitsu jardun ere.

Pertsonen autonomia errespetatzea da Fundazioaren jardunaren zutabeetako bat. Aitzindaria izan da Hurkoa laguntza-eredu berriak aplikatzen, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruz Nazio Batuen Konbentzioari jarraikiz legeria berrienak sustatzen dituenak, alegia. Ikuspegi

berri horrek laguntza lehenesten du ordezkatzearekin aurretik, elkarrizketa inposizioaren aitzitik, eta duintasuna ororen gainetik.

Baina oroitzapen hutsa baino zerbait gehiago da urtebetetze hau: etorkizunari begiratzeko aukera bat. Hurrengo urteotan, bere lana sendotzea du Fundazioak erronka nagusietako bat, gizartearen sentsibilizazioa areagotzea, laguntza-sare zabalagoak eraikitzea, lurraldeko erakunde eta eragileekin elkarlanean. Izan ere, erantzun partekatuak eman behar zaizkie biztanleriaren zahartzeari, nahi gabeko bakardadearen areagotzeari eta zenbait egoera pertsonalen konplexutasunari.

Bestalde, alde zuzeneko planifikazioa bultzatzen jarraitu nahi du Hurkoak, artatzen dituen pertsonen gaitasun mentalak osorik dituztela idatzirik utz ditzaten euren borondateak. Hartara, bermatu egiten da pertsona horien erabakiak bete egingo direla horretarako unea iristean.

Premia handiena dutenei laguntzeko sortu zen Hurkoa, eta eutsi egiten dio konpromiso horri: behartsuenak lagundu, babestu eta zaindu errespetuz eta profesionaltasunez, orain eta beti.

Hogeita hamabost urte geroago, behar dutenei laguntzen dien gizarte-erakunde bat baino askoz gehiago da Hurkoa: epaitu beharrean, laguntza eskaintzen duen erakunde bat, eskua beti zabalik duen

2020-2024

- 30 urteurrena: Hurkoako Gizarte lana eta etorkizuneko konpromisoa **2020**
- Eguneko zentroa: Mikrobus berria eta eguzki-plaken instalazioa **2022**
- Azkoitiko Hauskor hauskortasun programa Kudeatzeko leihaketaren esleipena **2023**
- Eguneko zentroa: Irigarritasunari eta energia hobekuntzari buruzko araudietara egokitzea **2023**
- Hauskor programa garatzeko hitzarmena Pasaiaiko udalarekin **2023**
- Desgaitasunari laguntzeko neurriei buruzko lege berriaren benetako aplikazioa ebaluatzeko jardunaldia **2023**
- Pasaiaiko Udalarekiko hitzarmena 2027ra arte berritzea **2024**

2000-2009

- Tutoretzari buruzko estatuko kongresua Kursaaletan Atzegi eta GFArekin **2000**
- ISO 9007 agiria Ntra. Sra. de las Mercedes eguneko zentroan **2001**
- Arrasateko egoitzaren irekitzea **2003**
- Matia-Hurkoa etika komitearen sorrera **2006**
- Lehendabiziko plan estrategikoa **2007**
- Landa eremuko adineko pertsonen Hurbiltzen organismoa **2009**

2010-2019

- 2014** 2014 Hurkoa Zainduz Fundazioa sortzea, egoitza eta eguneko zentroen kudeaketarako
- 2014** Irungo egoitzaren irekitzea
- 2015** Aurora Elosegui eta Evelia Canterari lehenengo urrezkoa "H"-a ematea
- 2015** Tolosan arreata tutelar bat ireki
- 2016** GFaren Boluntariotza saria jaso
- 2016** Donostiako Morlanseko egoitzaren irekiera
- 2017** Azkoitiako egoitzaren irekiera
- 2017** Eguneko zentroa eta tutoretza programen hitzarmena sinatzea GFArekin

1990 - 1999

- 1990** Hurkoa Fundazioaren sorrera
- 1993** Hurkoak lehendabiziko bere bi tutelak onartzen ditu
- 1998** Tutoretza bere gain hartzeko familiei aholkularitza eta laguntzeko emateko programa
- 1999** Hurkoak Caritaseko adinekoen programa bereganatzen du
- 1999** Caritaseko Laguntza Etxea eta Ntra Sra de las Mercedes adineko pertsonentzako eguneko zentroen kudeaketa
- 1999** Gaixotasun mentala larria duen helduen tutoretzak ematen asi



José Emilio Lafuente
Donostiako Elizbarrutiko Cáritaseko
idazkari nagusia

Hurkoa, 35 urte Gipuzkoako gizartearentzat lanean

Duela 35 urte, proiektu berri bat martxan jartzea otu zitzaion Donostiako Elizbarrutiko Cáritasi. Jose Maria Setien Alberro gotzaina izan zen ideia haren sustatzailea eta asmatzailea. Egitasmoaren xedea: hauskortasun-, mendekotasun- edo babesgabetasun-egoeran zeuden adinekoak artatzea. Hala, bada, 1990eko azaroaren 20an sortu zen Hurkoa Fundazioa, eta zera zuen helburu (garai hartako esparru juridikoaren espirituaren eta terminologiaren arabera): «Ezgaiak izanik, beraien eskubideen defentsan aritu zezakeen famili edo erakundeen babesik ez zuten pertsonak artatzea».

Bide luzea egin du harrezkeroztik Hurkoa Fundazioak, betiere sorrerako asmoa alde batera utzi gabe, eta sentikortasuna eta konpromisoa

bidaide dituela, asmatu du gizartearen desafio berrietara egokitzen: zaurgarritasun soziala, gizarte-aldaketak eta lege-erreformak, guztiak ere erantzun trinkoa eta eraginkorra eskatu duten erronkak. Hasierako proiektua egituratuz eta zabalduz joan dira aldaketa horiek guztiak, baina sorrerako ideiar irrimo atxikiz: behartsuenen alde jardutea beti.

Ikuspegi horri jarraikiz, Hurkoa Fundazioak laguntza, arreta eta babesa eskaini die desgaitasuna duten adineko pertsonen, mendekotasuna pairatzen dutenei eta gaixotasun mentalak dituztenei; halaber, aholkularitza eta laguntza eskaini die artatutako herritarren sendiei. Bestalde, hedapen geografikoan ere islatu da garapen

hori, betiere jendearengandik hurbilago jardutea eta arreta hobetzea xede direla: Donostian. Orendainen, landa-

“Behartsuenen alde dihardu Hurkoa Fundazioak azken 35 urteotan eta, haiekiko konpromisoa ardatz duela, garaian garaiko gizarte-desafioetara egokitzen da”

eremurako Hurbiltzen programarekin; Debagoienean eta Debarrenean, egoitza baten irekiera (Arrasaten) eta tutoretza-arretarako gune bat Tolosan; Pasaian, Arrasaten eta Azkoitian Hauskor programa abiarazi

da, eta egoitzak zabaldu dira Irunen eta Azkoitian.

Laguntza behar dutenei eta haien senideei zuzeneko arreta eskaintzeaz gain, besterik ere egin du Hurkoak: kudeaketa garden, ongi prestatua eta etengabeko hobekuntzara bideratua, kalitatea, erantzukizuna eta zintotasuna ardatz dituela betiere. Konpromiso hori dela eta, zenbait kalitate-ziurtagiri jaso ditu Hurkoaren kudeaketa-ereduak, guztiak ere bere prozesuen eraginkortasuna eta gizarte eskuhartze eredu aintzatesten dutenak. Lidergo irmoa eta konprometitu izan du oinarri bikaintasunaren aldeko jarrera horrek, zeinak gizatalde kohesionatu eta motibatu bat sendotu baitu. Kontratututako langileek eta boluntarioek osatzen dute lantaldea, maila guztietan: zuzendaritza- zein kudeaketa-organoak eta erakundearen partaidetza-guneak.

Funtsezko euskarria izan da beti boluntariotza Hurkoarentzat: alde batetik, ezinbestekoa eguneroko jarduneko ekintzetarako; bestetik, esker onaren, doakotasunaren eta gizatasunaren adierazle. Hasieratik bertatik balioetsi du Hurkoa Fundazioak boluntarioen

lana, eta biziki eskertu erakundearen xedea eta nortasuna indartzeko duten ahalmena eta konpromisoa. 2016an, Gipuzkoako Boluntariotzaren Saria jaso zuen Hurkoak, bere boluntariotzarekin eta boluntariotza horrek egindako lanagatik. Ikuspegi sozial, gizatiar eta solidario batetik abiatuta gizartearen alde diharduten pertsonen zein erakundeen eman ohi zaie sari hori.

Bestalde, lankidetzarako eta sareko lanerako duen asmoa argiro erakutsi du Hurkoa Fundazioak urteotan, partaidetzazko gizarte-ekintzarekiko

Boluntariotza da Hurkoaren euskarri nagusia, bere eguneroko jardueraren itxaropena eta gizatasuna islatzen dituena

duen konpromisoari jarraikiz: alde batetik, gogo biziz jardun da Gipuzkoako hirugarren sektoreko egitura asoziatiboa egituratzen, garatzen eta sendotzen; bestetik, estutu egin ditu administrazio publikoekiko harremanak, erantzun koordinatuak eta eraginkorrak proposatuz eta ekimenak batuz gizartearen beharrak asetzeko ekinean. Halaber, sentsibilizazio-lan handia egin du, bai artatutako jendearen egoera plazaratuz, bai haien arreta- eta laguntza hobetzeko intzidentzia-prozesuak bultzatuz, betiere erantzukidetasuna eta osagarritasuna ardatz direla, gizarte bidezkoago eta solidarioago bat eraikitzeko bidean alor publikoa, soziala eta komunitarioa bilduz.

Desafio ugari egin behar izan die aurre Hurkoak 35 urteotan, baina ez dira gutxi aurrean dituenak ere; besteak beste, biztanleriaren zahartzea, hauskortasun-egoerak, osasun mentaleko arazoen ugaltzea eta nahi gabeko bakardadearen hedatzea. Hona, beraz, hurrengo urteotarako erronka nagusietako bat: pertsonak ardatz

dituen ikuspegi etiko eta humanista batetik erantzutea behar horiei, arreta-eredu pertsonalizatuagoa, prebentiboagoa eta komunitarioagoa abiapuntu dela.

Itxaropenez betetako istorio baten hasiera izan zen Jose Maria Setienek sortu eta Donostiako Elizbarrutiko



Cáritasen bidez gauzatu zen Hurkoa Fundazioaren sorkuntza. Eta 35 urte geroago, jende eta familia askorentzat itsasargi bat izaten jarraitzen du Hurkoak. Izan ere, zera erakusten digu Fundazioaren lan etengabe, konprometitu eta sakonki gizatiarrak: pertsonen arreta ez dela —soilik— eginkizun profesional bat, baizik eta —batez ere— lagun hurkoarekiko maitasunaren adierazgarri dela. Hori da, hain justu ere, Ebanjelioaren funtsa, baita Fundazioaren keinu, erabaki eta urrats bakoitzari zentzua ematen dion printzipio nagusia ere.

***“Gaur egun ere itsasargi
moduko bat da Hurkoa
jende eta familia
askorentzat”***



Duela 35 urte deitu zidan Evelia Canterak proiektu honetan parte hartu nezan eskatzeko, baina atzo jaso banu bezala gogoratzen dut deia.

Lehendik ere ezagutzen genuen elkar Eveliak eta biok: Cáritasekin lotura estua duen Karitateko Alabekin ari zen bera; ni, berriz, Udal Benefizientziako mediku, Ategorrietako egoitza hartan, Laguntza Etxean. Beti egoten zen etxe hartan ohea eta laguntza bakarrik bizi zen eta gaixotzen ziren edo etxerik ez zuten pertsonak gaixotzen zirenean.

Zer dela eta kontatzen dizuedan hori guztia? Bada, uste dudalako ongi adierazten duela Hurkoaren sorrera, ibilbidea eta espero dut etorkizunari ere: «Erne egotea gatzazkie gizartearen behar berri eta asegabeei, erakunderekin elkarlanean jardunez premia horiei erantzuteko».

Duela 35 urte, zenbait gaixotasun ekarri zituen berekin biztanleriaren zahartzeak; besteak beste, dementzia, zeinak galarazi egiten zien zenbait jenderi euren beharrei beren kabuz aurre egitea. Eta are larriagoa zen arazoa beren ondasunak administratzeko eta zainketa antolatzeke familiarik ez zutenentzat. Testuinguru horretan sortu zen Hurkoa Fundazioa, adineko pertsonen tutela erakunde bezela.

Gogoan ditut oraindik nire lehen balorazioak, bakarrik zeuden eta narriadura kognitiboa pairatzen zuten pertsonen etxeetan mediku geriatra gisa egin nituenak. Bistakoa zen pertsona haien babesgabetasun-egoera.

Urteek aurrera egin ahala, berriz, adinekoak ez ezik gaixotasun mentalak zituztenak artatu behar ziren. Erronka handia zen haien arretaz arduratzea, zainketa

konplexuagoak behar baitzituzten eta gizarte-baliabide gutxiago baitzegoen haiek artatzeko.

Barrutik ezagutu dut Hurkoaren lana, baina baita kanpotik ere; izan ere, Hurkoak laguntzen zituen zenbait pertsona artatu izan ditut mediku gisa,

erabiltzen dituzten beste erakunde batzuk erakarri.

Laguntza Etxeatik Hurkoa kkudeatzen duen “ Nuestra Señora de las mercedes eguneko zentrora” pasatu zen, eta maitasun berezia diot.

“Hogeita hamabost urte igaro dira jada, eta aldatu egin da gure gizartea, baina Hurkoak lanean jarraitzen du, bere sorrerako xede berari eutsiz: bete gabeko behar sozialak atzematea eta haiei erantzuna ematea”

eta beti izan nuen argi arreta egokia jasoko zutela, bai ospitalean, bai alta jaso ondoren. Bestalde, pazienteen erreferentziazko langileek ere esku hartzen zuen haien osasunari buruzko erabaki konplexuetan.

Azken urteotan, aldatu egin dira gizartearen beharrak eta haiei aurre egiteko moduak ere: lehen, desgaitasunari eta mendekotasunari ematen zitzaien lehentasuna, eta ongintzan oinarritutako ikuspegia zen nagusi; orain, aldiz, gehiago erreparatzen zaie gaitasunari eta haren arabera erabakiak hartzeko ahalmenari. Kontzeptu-aldaketa horrekin batera etorri zen lege-aldaketa: lehen, tutoretza; egun, laguntza-neurriak. Nire ustean, pertsonen beharrak eta nahiak lehenesten dituen arreta-eredua da Hurkoarena aspaldi honetan, baina paradigma-aldaketa horrek beste desafio bat ekarri digu: arreta-eredu are pertsonalizatuagoak eraiki behar dira, eta eredu horiek gutxiago

Hasieratik egin zait deigarria Hurkoako profesionalek egiten duten ahalegina zainketak pertsonalizatzeko eta erabiltzaileen zein haien senideen behar guztiak asetzeko. Horren adibide ditugu paziente bidaiariari batetik bestera ibiltzeko ematen zaien aukera, murritzapenak aplikatu orde; higiene-saio bereziak, etxean burutu ezin direnak, eta asteburuko egonaldiak [ekimen aitzindaria]. Bestalde, erabiltzaileek gaitasunak mantendu edo berreskura ditzaten saiatu da beti Hurkoa, eta horregatik du fisioterapeuta bere profesionalen artean. Lankidetza du beste ezaugarri nagusietako bat: harreman estua duenez osasun-etxearekin, zentroan bertan egiten dira zenbait esku-hartze sanitario [txertaketa-kanpainak, esate baterako].

Beti izan da Hurkoa bereziki sentikorra hauskortasun sozialarekiko; izan ere, biztanleriaren zahartzeak eta eredu soziofamiliarren aldaketak areagotu egin du pertsona hauskorren

kopurua. Horra gure gizartearen beste erronka esanguratsu bat, hauskortasuna menderatzeak edo geldiarazteak ondorio hau ekarriko baitu: jendea hobeto bizitzea eta mendekotasunaren garaia atzeratzea. Lagundu egin behar du Hurkoak pertsona horiek detektatzen, bere ezagutza gizarteratuz, eta haien autonomiaren eta ongizatearen aldeko ekimenetan esku hartu. Inoiz baino gehiago behar ditugu orain boluntarioak, nahi gabeko bakardadeari eta egoera zailei aurre egiteko.

Nire oroitzapena eta eskerrik onenak lankide izan ditudan boluntario eta profesional guztiei, baita urteotan Hurkoaren proiektuak gauzatzeko beren denbora, ilusioa, lana, ezagutza eta dirua eskaini eta erabili duten erakunde eta antolakunde guztiei.

Hogeita hamabost urte igaro dira jada, eta aldatu egin da gure gizartea, baina Hurkoak lanean jarraitzen du, bere sorrerako xede berari eutsiz: bete gabeko behar sozialak atzematea eta haiei erantzuna ematea.



“Beste era batera begiratzeko ikastea ere bada zaintzea”

Valentina Montero Vilar
Tolosako notarioa

Nire bulegoan notario lanean jardunean hasi zen Hurkoa Fundazioarekiko nire harremana. Fundazioa ezagutu nuenean, bat egin zuten hauskortasunaren arretarako haren jarduerak eta familiarekiko nire erantzukizunaren aldaketak: seme-alabek ez zuten behar jada eguneroko zainketarik, baina gurasoak hasiak ziren haien premia nabaritzen. Ordura arte, batez ere hurbileneko familiari —senarrari eta seme-alabei— eskaintzen nion arreta, eta nire ingurunean adinekoek jarraitzen zuten gu denok zaintzen; haiek ziren gure euskarria. Baina, halako batean, aldatu egin ziren gauzak: eurek, adinekoek, laguntza gehiago behar zuten, arreta handiagoa. Orduan azaldu zen Hurkoa nire bideoan.

Lehenbiziko harreman hartatik eragin zidan zirrara jendea artatzeko Hurkoaren ardura. Ez neukan garbi nori laguntzen zioten —zehazki—, ezta zein zen artatuen profila ere. Baina bazegoen zera nabarmen bat: denek partekatzen zutela ezaugarri bera, hauskortasuna. Orduan jabetu nintzen neuk ere ez nekiela oso argi zer zen hauskorra izatea edo besteen laguntza behar izatea, mugatua baitzen nire ikuspegia. Alabaina, garbi neukan Hurkoaren ondoan egon nahi nuela eta baietz erantzun zutela Fundazioak proposatzen zidan orori.

Hunkitu egiten nau, 35. urteurren honetan, Fundazioaren bidaide izateko aukerak haren «heldutasun gaztean». Hogeita hamabost urteko historiak berekin dakartza esperientzia,

“Miresgarria iruditzen zitzaidan inoren intimitatea urratu gabe laguntzen ziotela jendeari; duintasunez tratatzen zituztela zainduak, ez umeak balira bezala; errespetatu egiten zutela haien autonomia”





profesionalizazioa —hitzaren zentzurik onenean— eta jarduera sendotua. Baina indarra, ikuspegia eta geroa ere badakartza. Eta ibilbide horretan bidaide izaten jarraitu nahi dut, haien ondoan ikasten.

Hurkoaren bilakaeraren lekuko izan naiz; batzuetan —egia da— urruti samarretik, baina Hurkoarekiko harremana aberasgarria izan dut, alor profesionallean zein pertsonalean. Miretsi egin dut gizatasunik galdu gabe profesionalizatzeko Hurkoak erakutsi duen ahalmena, eraginkortasuna alde batera utzi gabe etikoki jardutekoa, lana hobetzearen bere jarduerak aztertzea norbere zaintzari balioa emateko, hobekuntzak dakartzaten kanpoko ahots guztiak entzutekoa... Bere balioei irmo eusten diela ikusi dut: jendearen autonomia errespetatuz ekitea zainketa-lanari; inoren intimitatea urratu gabe laguntzea jendeari; duintasunez tratatzea zainduak, ez umeak balira bezala...

“Norbanakoen bizitzak ez ezik inguruneak eta ikuspegiak ere aldatzeko gai zen eragile sozial bat aurkitu nuen”

Batez ere Hurkoaren talde juridikoak bultzatu nau haztera. Izan ere, haien maila berean jarduteko, ikasi egin behar izan dut, gogoeta egin, lankideei galdetu,..., eta eredu juridiko tradizioaletan sartzen ez diren konponbideak bilatu arazoei. Ikuspegi berriak nireganatu behar izan ditut, eta jabetu legea ere alda daitekeela pertsonen zerbitzura aritzeko, batez ere zaurgarrien zerbitzura.

Gizartearen eragile gisa jarduteko Hurkoak duen gaitasuna miresten dut: aitzindaria da trebakuntzan, aldaketetara egokitzen..., azken batean, berrikuntzan. Eta eskuzabaltasunez partekatzen du ezagutza hori inguruan dituenekin. Ezaugarri ditu elkartasuna, laguntzen duen jendearen emozio eta egoerekiko enpatia, duintasunarekiko errespetua, etengabeko konpromisoa.

Etorkizunari dagokionez, berriz, ikusgarritasuna du desafio nagusietako bat, nire ustean. Izan ere, laguntzen duen jendearekiko konpromisoa ez ezik, badu inguruneak eta, ondorioz, gizartea aldarazteko ahalmena ere. Eutsi goiari! Mila esker!



Zainketak, laguntza eta beste zenbait kontu

Mari Mar Estella, Eva Quintano eta Lidia Vicente
Hurkoako eguneko zentroko gerokultoreak

Hasieran, asteburuetan egiten genuen lan hirurok zentroan, ordezkapenak egiten genituen..., gaurdaino. Hemen eman dugu bizitza. Eva 1994an hasi zen, sasoi hartan Cáritasek kudeatzen zuen Laguntza Etxeko eguneko zentroan ordezkapen bat egiten, eta gauza bera egin zuen Mari Marrek handik

urte batzuetara. Lidia, berriz, Las Mercedesen hasi zen, 17 urte zituela, baina Laguntza Etxean ere egin zuen ordezkapenik.

Harro gaude hirurok lan berean hainbeste urte igaro izanaz, zera adierazten baitu horrek: Fundazioarekin

inplikazioa dugula eta bat gatozela haren xedearekin eta balioekin. Ohore handia da, izan ere, Gipuzkoako eguneko zentro zaharrenean lan egitea, eta oso pozik gaude gure ibilbideaz, helburu berbera lortzearen jardun baikara beti: ondo zaintzea gure ardurapean dauden pertsonak, eta haien bizi-kalitatea bermatzea.

Jendeari laguntzen saiatu gara urteotan ahalik eta ongien bizi zitezen, eta alde handia nabaritu dugu hasierako erabiltzaileen eta gaur egungoen artean. Garai hartan, pobrezia eta arazo sozial larriak pairatzen zituen jendea etortzen zen zentrora. Cáritasetik Hurkoara aldatu ginenean, berriz, iraultza moduko bat izan zen guretzat, baina biziki eskertzen diogu Hurkoari zentroak martxan jarrai dezan urteotan egindako lana.

Pertsona ardatz duen arreta-eredua hautatu du Hurkoak; hori dela eta, nahitaez egin behar izan dugu gogoeta honetaz guztiaz: zer zaintza-mota nahi dute pertsonak, zer premia dituzte, zein dira haien nahiak eta lehentasunak. Zenbait aldaketa egin behar izan ditugu eguneroko jardunean, erabiltzaileek egiazki nahi eta behar duten horri ekiteko. Haien bizitzaren historia entzuten ikasi dugu, eta gehien axola

“Ohore handia da, izan ere, Gipuzkoako eguneko zentro zaharrenean lan egitea, eta oso pozik gaude gure ibilbideaz, helburu berbera lortzearen jardun baikara beti: ondo zaintzea gure ardurapean dauden pertsonak, eta haien bizi-kalitatea bermatzea”

zaizkien gauzez mintzatu gara eurekin, ahal dugun neurrian beraiek espero dutena gauzatzen laguntzeko. Badakigu, bestalde, erabiltzaileei ez ezik haien senideei eta gizarte osoari ere laguntzen diela gure lanak.

Gure ekinean lagundu diguten familia, langile eta boluntario asko ezagutu ditugu hainbeste urtetako ibilbidean eta, bide batez, ohartu gara baditugula zenbait trebetasun, orain arte azaleratu gabeak. Bestalde, oso une atseginak igarotzen ditugu lanean: Mari Mar Urtezahar gaueko Anne Igartiburu da, eta festa guztietako party plannerra; Eva, berriz, oso iaioa da joste-lanetan, eta Lidia, azkenik, aparta da txisteak kontatzen eta pandereta jotzen. Egia esan, talde bikaina osatzen dugu, eta pertsona bakoitzaren alderdirik onena plazaratzen ahalegintzen gara, betiere artatzen ditugun gizon-emakumeen ongizatea dugula helburu.

Gure desioa? Hurkoak urte luzez jarraitzea orain arte bezala lan egiten, Gipuzkoako gizarteari laguntzen eta sortzen diren beharrei erantzuten, behartsuenen alde betiere.

Geroz eta zaharragoa den gure gizarte honetan, uste dugu arreta berezia eskaini behar zaiela bakarrik dauden eta/edo gaixotasun mentalak dituzten adinekoei; ez ditugu bazterrera utzi behar.

Hemen lanean ari garela hartu nahi genuke erretiroa, eta zentroak luzaroan irautea, bitarteko oso baliotsua delakoan baikaude. Bestalde, zainketen sektoreak merezi duen aitortza jasotzea gustatuko litzaiguke; bokazioz hautatzen den lanbidea da, izan ere, eta dagokion balioa eman behar zaio. Eta jende askok besterik uste arren, edonork ez du balio lan honetarako: funtsezkoak dira giza trebetasunak, jarrera egokia eta motibazioa. Adimen artifizialaren bat-bateko hazkundera ikusirik, berriz, jeloskor samar gabiltza, mehatxu gisa ikusten baitugu. Gure ustean, oso lagungarria da teknologia hainbat egoeratarako, baina besarkada edo fereka baten parean ezin da jarri makina baten lana.

Zer esango geniekeen Hurkoako etorkizuneko langileei? Bada, bat egin dezatela Hurkoaren balioekin —abegi ona, zintotasuna, etengabeko hobekuntza, parte-hartzea eta elkartasuna—, ez daitezela horiek galdu, erakundearen funtsa dira eta. Sormen eta pazientzia handia behar dira lanbide honetan, eta zuhurtziaz eta pazientziaz hartu erabakiak, beste pertsona batzuei eragiten baitiete. Izan ere, ate asko —eta pertsonen bihotzak— zabaltzen ditu irribarre batek.

“Pertsonen zainketan, ezin da besarkada edo fereka baten parean jarri makina baten lan”

EGUNEKO ZENTROA

Astelehenetik ostiralera

Gizonak **22,47%**

Emakumeak **77,52%**

Batez besteko adina **82**

Mendekotasun larria **30%**

Mendekotasun ertaina **45%**

Mendekotasun handia **25%**

Asteburuak

Emakumeak **82,22%**

Gizonak **17,77%**

Batez besteko adina **84**

Mendekotasun larria **42%**

Mendekotasun ertrina **42%**

Mendekotasun handia **26%**

Balorzio gabekoak **2%**





Arreta eta hazkundera

María Casla
Hurkoako gizarte-langilea

Ikasketak bukatu nituenean —1993ko amaiera aldera— izan nuen lehenbiziko harremana Hurkoarekin. Sasoi hartan, praktikaren bidez ikasten jarraitzea zen nire asmoa; izan ere, lehendik ere adinekoekin boluntario jarduna nintzen, eta haiekin lanean segitzeko gogo biziz nengibilen. Halako batean, Evelyia Canteraz hitz egin zidaten. Caritaseko eta Hurkoako adinekoen alorraz arduratzen zen gizarte langilea, eta boluntarioekin ari zen Hurkoan. 1993an ezagutu genuen elkar, eta gaur egun arte...

Lau laguneko talde batean hasi nintzen boluntario (boluntarioak ziren haietako hiru). Harrezkeroztik, etengabe eboluzionatu, aldatu eta hazi

da Hurkoa. Hasieran, gaitasun mental mugatuko eta babes-ingurunerik gabeko adinekoak artatzen zituen bereziki; geroago, berriz, gaixotasun mentalak zituztenak ere artatzen hasi zen, pertsona horien eta euren senideen laguntza-premiei erantzunez.

Soldatapeko langileen eta boluntarioen jarduerari esker hazi da Hurkoa. Urteen poderioz, kalitate-gehigarri bat ekarri dio boluntariotzak erakundearen arretari, eta haren alor guztietan jardun da: juridikoetan, administratiboetan, sozialetan...

Denborak aurrera egin ahala, bestalde, arreta-bulego berriak zabaldu dira,

artatutako jendearengandik are hurbilago egotearren. Egun, bi bulego ditu Hurkoak Donostian, bat Irunen, eta bana Arrasaten eta Azkoitian.

Hurkoaren zeregin nagusia legezko tutoretzaren bitartez artatzen diren pertsonen arreta. Gaur egun, legezko kuradoretza eta laguntza-neurriak dira. Neurriak pertsonen bizi-kalitatea hobetzea dute helburu. Pertsonak ardatz dituen arreta hobesten denez, garrantzizkoa da artatzen direnen historia eta balioak ezagutzea.

Legezko laguntza-neurrien bitartez artatzen den jendeari ez ezik adinekoei ere arreta eskaintzea lehentasuna du Hurkoak, eta

batez ere hauskortasun-egoeran dauden adindunez arduratzen da. Hauskortasunaren definizioa ikerketa baten bidez zehazteko ahaleginak egin dira azken urteotan: programa pilotu bat garatu da (Hauskor), horren ondorioz hauskortasun egoeran dauden pertsonen laguntzarako Hauskor programa sortu zen, gaur egun Pasaian eta Azkoitian burutzen dena, bi herri horien udalekin elkarlanean.

Bestalde, patologia bikoitzak — gaixotasun mentala eta toxikoen kontsumoa— pairatzen dituzten geroz eta gazte gehiago etortzen dira Hurkoara aspaldi honetan. Oso

profil konplexuko pertsonak dira, eta laguntzeko zailak ez baldin badute euren egoera aitortzen eta laguntzarik onartzen. Horregatik, garrantzizkoa da Hurkoak egikaritu ditzaken babes neurri laguntza neurriak eta ardurak bakarrik hartu ditzala bere gain.

Asko maite dut Hurkoa, eta askotan pentsatu dut —nire laneko ibilbidean— Hurkoa existituko ez balitz asmatu egin beharko litzatekeela. Nire ustean, une zailak bizitzen ari zen jende askori lagundu dio Hurkoak azken 35 urteotan, eta haien bizi-kalitatea hobetzea ahalbidetu du. Harro sentiarazten zaitu, zinez, zeregin horretan parte hartu izanak.

Hurkoa hasieratik gaurdaino ezagutzeko pribilegioa izan dut, eta giza kalitate goreneko jendearekin jardun naiz urte hauetan guztietan: soldatapeko langileekin, boluntarioekin eta arreta-hartzaileekin, hain zuzen ere. Asko ikasi dut haiengandik, eta gaur egun ere ikasten jarraitzen dut.

Eta etorkizunean zer? Bada, espero dut inoiz ez galtzea Hurkoak bere izaera eta balioak, eta lanean jarraitzea —soldatapeko langileekin eta boluntarioekin—, betiere artatzen duen jendea ardatz duela.



LAGUNTZA NEURRIAK

Pertsona kopurua

615 Artatuak

323 Gizonak

292 Emakumeak

157 80 urtetik gorakoak

183 65-79 urtekoak

190 50-64 urtekoak

78 30-49 urtekoak

7 29 urtekoak

Familias

175 Kontsulta



Konpromiso etiko eta sozialaren adibide bikaina

Teo Alberro
Pasaiaiko alkatea

Gertutik eta aspalditik ezagutzen dut Hurkoak egiten duen lana. Sortu zenetik, funtsezko zeregina bete du Gipuzkoan zaugarritasun bereziko egoeran dauden pertsonen eskubideen eta zaintzaren defentsan: adinekoak, gaixotasun mentala duten pertsonak, edo hauskortasun-, mendekotasun- edo babesgabetasun-testuinguruetan daudenak. Haren lana, diskretua zein irmoa, konpromiso etiko eta sozialaren erreferentzia izan da beti.

Ekoizpena eta errentagarritasuna eztabaidaren erdigunean daudela dirudien garai hauetan, Hurkoaren ibilbideak gogorarazten digu bidezko gizarte bat, batez ere, gehien behar dutenak tratatzeko moduaren arabera

neurtzen dela. Fundazioak erakutsi du posible — eta beharrezkoa — dela pertsonen laguntzea, haien autonomia errespetatuz, haien duintasuna babestuz eta eskubideak bermatuz. Eta ikuspegi integral eta sakon batetik egin du, zaugarritasunak ez duela baliorik kentzen ulertuta; aitzitik, arreta handiagoa, presentzia handiagoa eta zaintza handiagoa eskatzen dituela.

Pasaiaiko Udalak bereziki baloratzen du Hurkoak bultzatzen duen ikuspegi komunitarioa. Badakigu errotzea, gizarte-loturak eta ingurune hurbila funtsezko elementuak direla ongizaterako. Hurkoak jakin izan du sareak eraikitzen, erakundeekin lankidetzan aritzen, profesionalak eta

boluntarioak inplikatzeko eta artatzen dituztenen eguneroko bizitzan presente egoten. Hurbiltasun-lan horrek, askotan ikusezina, eragin sakona du pertsonen bizitzan eta gure auzo eta udalerrietako gizarte-kohesioan. Eta hori, jakiteaz gain, bultzatu ere egiten dugu egunez egun Pasaiaiko Udalean, Hauskor programaren bidez.

***“Hurkoaren ibilbideak
gogorarazten digu bidezko
gizarte bat, batez ere,
gehi behar dutenak
tratatzeko moduaren
arabera neurtzen dela”***

Baina, era berean, bidezkoa da azpimarratzea hori guztia ezinezkoa izango litzatekeela lan egiteko modu jakin bat gabe, alegia, komunitarioa, hurbila eta gizatiarra lehenesten dituen, betiere pertsonak erdigunean jarritz. Hurkoak islatzen duen etikaren arabera, eskubideak ezin dira kapital ekonomikoaren edo familia-laguntzaren mende egon; aitzitik, komunitateak eta erakundeek bermatu behar dituzte eskubideak. Ildo horretan, zaintza erantzukizun kolektibo gisa zer den erakusten duen adibide bizia da.

Etorkizunari begira, erronkak ez dira gutxi. Biztanleriaren zahartzeak, nahi ez den bakardade-egoeren gorakadak, laguntza pertsonalizatuaren eskaera gero eta handiagoak edo zerbitzuak gero eta errealitate konplexuagoetara egokitzeko beharrak hausnarketa eta ekintza eskatzen dituzte. Gainera, ezinbestekoa da legezko babes-modu bakar gisa tutoretza gainditzeko duen eredu baterantz aurrera egitea, duela gutxiko lege-aldaketek

eta Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioak proposatzen duten bezala. Hurkoa jada urratsak egiten ari da norabide horretan, pertsona bakoitzaren borondatean eta lehentasunetan oinarritutako laguntza-sistemen aldeko apustua eginez, eta prozesu horietan zorroztasunez eta sentsibilitatez lagunduz.

Pasaiaiko alkate naizen aldetik, uste dut etorkizuna aliantzak ehuntzen jarraitzean datzala, erakundeen, gizarte-erakundeen, profesionalen eta herritarren artean. Izan ere, begirada kolektibo, inklusibo eta solidario batekin bakarrik bermatuko ditugu bizitza duin eta osoak pertsona guztientzat. Eta bide horretan, Hurkoak ezinbesteko erreferentzia izaten jarraituko du.

Eskerrik asko zuen ibilbideagatik, zuen konpromisoagatik eta etorkizunari irekitako begiradagatik. Zorionak urteurrenarengatik, eta gure esker onik beroena zuen lan guztiarengatik.



HAUSKORTASUNA

Artatutako persona-kopurua

3 kontsulta berri

19 aldian behingo arretan

6 ohiko arretan



Hauskor programa

17 Azkoitia

30 Pasaia



Pertsonetikiko konpromisoari buruzko istorio bat

Begoña Zubimendi
23 urtez boluntario Hurkoan

Fundazioaren bilakaeraren eta hazkunderaren lekuko izateko aukera izan dut azken urteotan. Hasieran, erakunde txikia zen Hurkoa, oso hurbilekoa eta familia-girokoa, baina oso azkar hazi da, irismen handiko antolakunde bihurtu arte, eta Gipuzkoa osoan ditu ordezkartzaren bidez probintzia osoan dago.

Nire ibilbidearen lehenbiziko urteetan, batez ere familia handi bat zen Hurkoa: erakundearen agindutara geunden boluntariook, eta gure beharra zuten edozein lekutara joaten ginen, erabiltzaileak zaintzera eta laguntzera: adinekoak, desgaitasuna zuten pertsonak, zaurgarritasun-maila handiko jendea... Izapideak egiteko laguntza ez ezik, besterik ere behar zuten pertsona haiek, batez ere samurtasuna, norbaitek entzutea eta lagun abegitsu bat, hain bakarrik ez sentitzeko. Argi-izpi moduko bat ginen haientzat —eta gara gaur egun ere—, zaurgarritasunak, gaixotasunak edo bazterkeriak markatutako bizitzak baitzeramatzaten askok eta askok.

Urteek aurrera egin dute eta, jakina, gauzak aldatuz joan dira. Hazi egin da Hurkoaren tamaina eta egitura, baina gizartearen aldaketetara egokitzen asmatu du erakundeak. Izan ere, izugarri aldatu da gure gizartea, eta indibidualismoa, presa eta teknologia berriak ditugu ezaugarri nagusietako batzuk. Boluntariotzan ere nabari da bilakaera hori: orain, gutxiago gara, eta ez dira hain ohikoak epe luzeko konpromisoak. Bestalde, partaidetza-modu berriak sortu dira, malguagoak, non laguntzeko zenbait bide baititu jendeak. Partaidetza-modu berriak ez dira lehengoak bezain zorrotzak, baina bai haiek bezain baliagarriak.

Beraz, gizarte-errealitate berri honetara egokitzea du helburu nagusietako bat Hurkoak gaur egun. Gogor egiten du lan Fundazioak boluntarioen jarduerak eraldatzailea izaten jarrai dezan, boluntario berriek beren lekuak, denborak eta inplikazio-bideak aurki ditzaten, betiere hasieratik bereizgarri izan ditugun balioei jarraikiz: duintasuna, sentikortasuna, errespetua eta zaurgarrienekiko konpromisoa.

Azken 35 urteotan, egungo errealitateari zabalik dagoen leiho bat izan da Hurkoa. Denok dakigu errealitatea hor dagoela, baina — sarritan— ez ikusiarena egiten diogu: zaurgarritasuna, mendekotasuna, hauskortasuna, bakardadea... Etengabeko lan isilaren bitartez, gizarte osoa egin du errealitate horrekiko sentikor eta partaide; gogoratu digu, besteak beste, zifra bakoitzaren, kasu bakoitzaren atzean pertsonak daudela —eta pertsona horien istorioak eta sentimenduak—, eta babestu egin behar ditugula haien eskubideak.

Niri neuri dagokidanez, izugarri gogobete nau Hurkoan boluntario jarduteak. Zailtasunak eta une gogorak bizi izan ditut erabiltzaile batzuei lagunduz, baina pertsona gisa hazteko baliagarri izan zait

“Horixe da egin dezakegun gauzarik handienetako bat: gehien behar gaituztenak zaintzea, laguntzea eta babestea”

esperientzia: entzuteko gaitasuna garatu dut, enpatia, pazientzia..., baita ordura arte ezinezkoak iruditzen zitzaizkidan beste zenbait gaitasun ere. Baina, batez ere, jende apartak osatzen duen erakunde bateko partaide izateko pribilegioaz gozatu dut, egunero-egunero bihotzez jarduten duten hainbat langile eta boluntario ezagutzeko aukeraz.

Hurkoako kideok beti izan dugu argi erabiltzaileak direla gure arretaren ardatza. Kontua ez da —bakarrik— zerbitzu bat eskaintzea: laguntza-gizatiarra eskaini, behar gaituzten tokira joan, premia handia dutenen duintasunari eutsi... Etikoa ere bada gure konpromisoa, hots, ahulenen eskubideak babesten ditugu, batzuetan dagokiena aldarrikatzeko batzuetan ahotsik ez dutenena.

Lehenago ere aipatu dudanez, asko aldatu da gure gizartea azken urteotan, batez ere COVID-19-aren pandemiaren ondotik. Lehendik ere martxan zeuden zenbait eraldatze-prozesu bizkortu egin ditu krisi sanitario, sozial eta ekonomiko honek, eta munduan egoteko zein jarduteko gure modua berriro aztertzea behartu gaitu. Hurkoa ez da prozesu horretatik aparte geratu, eta gogotsu dihardu boluntariora kudeatzeko formula berrien bila, betiere bereizgarri dugun elkartasun- eta konpromiso-espirituari bizirik eustearren.

Hauskortasuna eta bakardadea pairatzen dutenen egoera begien aurrean jarri digu Hurkoak, eta gizarte osoaren sentikortasuna sustatu du

Hogeita hamabosgarren urteurren honetan, esker onez begiratzen dut atzera, eta itxaropenez etorkizunera. Ziur naiz Hurkoak erreferentziazko erakundea izaten jarraituko duela gure lurraldean, denon ongiriaren alde lan egiten duen langilez eta boluntarioz osatutako familia handi bat izango dela gerora ere. Harro nago ibilbide horretako partaide izateaz, eta elkartasunaren deia sentitzen duten guztiei eskatzen diet bat egiteko hain beharrezkoa den proiektu honekin. Izan ere, horixe da egin dezakegun gauzarik handienetako bat: gehien behar gaituztenak zaintzea, laguntzea eta babestea.





Erreferentzia gizatasunean eta gizarte- eraldaketan

Lide Amilibia

Gizarte Zerbitzuetako Goi Ikuskaritzako
Organoko zuzendaria

Harro sentitzen naiz Hurkoaren sorrera gogoratzeko ekimenetan parte hartzeaz, 35 urte baitira jada erakunde hori lanean hasi zela. Erreferentziatzko antolakundea da Hurkoa, Gipuzkoan, desgaitasun, menpekotasun, babesgabezia edo hauskortasun egoeran dauden adineko pertsona edo gaixotasun mentala duten pertsonen eta beraien familien arretan.

Gizarte Politiken arloan Eusko Jaurlaritzan dudan erantzukizunetik oso gertu sentitu ditut beti Hurkoa osatzen duzuen pertsona, profesional eta boluntario konprometituak, laguntzaileak, arduradurak, behar handia duten pertsonen bizi kalitatea hobetzeko borrokatzen dutenak eta hori lortzeko erakundeangandik behar den konplizitatea eta laguntza bilatzen dutenak.

Jarrera proaktiboa, ideia ugari mahai gainean eta elkarlanean jarduteko gogo: horrela ekin genion, duela hamar bat urte, hauskortasunari buruzko proiektuari. Sasoi hartan, batez ere mendekotasunari erreparatzen genion erakundeok, baina zuei esker ohartu ginen garrantzitsua dela zaurgarritasuna eta narriadura nabarmentzen hasten diren aurreko fase horretan ere jardutea.

Ordurako hasiak ginen hauskortasunaz hitz egiten Hurkoarekin, eta zera ondorioztatu

genuen: prozesu bat dela, hari aurre egiteko funtsezko faktorea laguntza dela —ikuspegi komunitarioa bidaide duela—, bere ohiko bizilekuan mantendu behar dela jendea, pertsona ardatz duen arretari eman behar zaiola lehenetsia, eta garrantzi handia duela entzute aktiboak. Berritzaileak ziren kontzeptu horiek garai hartan, eta gaur egun ere indarrean dira gizarte-politiketan.

Ekainaren 2ko 8/2021 Legea onartu aurreko sasoia ere funtsezkoa izan zuen gure arteko harremanak. Izan ere, lege horrek aldatu zuen desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko legeria zibil eta prozesala, haien gaitasun juridikoa egikaritzeko ahalmenari dagokionez. Paradigma-aldaketa iragartzen zuen lege berriak desgaitasuna duten pertsonen eskubideekiko, baina ez zegoen batere argi nola eragingo zien araudiak Hurkoari eta gisa bereko erakundeei.

Erabat aldatu zen gehiegizko babesa ematen zuen legeria hura eta, haren ordeztu, ezgaitzea, tutoretza eta ordezkatzeko ezabatzen zituen araudia nagusitu zen, desgaituen gaitasun juridikoa aitortzen zuena eta beraiei erabakitzeko autonomia haunditzen zuten babes neurrien bidez egikaritu zezaten bultzatuz.

Erabateko aldaketa ekarri zuenez legeria berriak, sentsibilizazioa eta trebakuntza behar zuten eragile juridikoek inertzia aldarazi eta prozedura berrietara egokitzeke.

Horrenbestez, lan egiteko era aldatu egin behar izan zuten Hurkoa Fundazioak eta gainerako tutoretza-erakundeak, baina, kikildu beharrean, gogoz ekin zioten araudiaren eta haren bide berriak menderatzeari, artatzen zituzten herritarrek ez zezaten inongo kalterik jaso eta haien eskubideak eta askatasunak berma zitezten.

Hala, bada, urduritasuna lan bilakatu zen eta, ekinaren ekinez, araudi berrien aginduetara egokiro moldatu ziren erakundeak. Eta Fundazioak bereizgarri duen balioetako bati jarraikiz —etengabeko hobekuntzari, alegia—, jardunaldi bat antolatu zuen Hurkoak Legea indarrean sartu eta handik bi urtera. Han izan ginen gu ere, Eusko Jaurlaritzaren izenean. Aldaketen, hobekuntzen eta zailtasunen balantzea egin zen jardunaldian, non zera azpimarratu genuen:

«Gizarte gisa, paradigma berria ez ezik onartu behar dugu inor ez dela erabat independentea eta autonomia, denok garela elkarren mendeko eta laguntza behar dugula duintasunez eta osoki bizitzeko, batzuetan laguntza jasotzea eta besteetan ematea tokatzen zaigula. Azken batean, desgaitasuna ez zaigula arrotz» onartu behar dugu.

Hurkoa indartsu bat beharko dugu aurrerantzean ere, gure gizartearen erronka nagusietako batzuei ekiteko; izan ere, Euskadiko biztanleriaren zahartzeak areagotu egin ditu mendekotasun- eta desgaitasun-egoerak adinekoen artean. Hori dela eta, ezinbestekoa da prebentzioa eta adinekoen autonomia sustatzea errealitate horri behar bezala aurre egiteko.

Administraziook eta gizarte erakundeak elkarlanean jarraitu behar dugu nahi gabeko bakardadeari ekiteko ahaleginean; baliabideak eskaini behar ditugu adinekoek beren ohiko bizilekuan jarrai dezaten; autozaintza eta ongizate-teknologiak bultzatu behar ditugu zaintza-lanak etxean bertan egiten laguntzeko eta, azken batean, autonomia-galera prebenitu pertsonen beharrezkoak diren babes neurriak eskeiniz.

Hurkoak erreferentziazko erakunde izaten jarraitzea nahi nuke, bere balioei eta lan egiteko moduari eustea, oso erronka larriari egin beharko baitiegu aurre hurrengo urteotan eta zuen ezagutzaren beharra izango baitugu erakundeak.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiet Hurkoari, profesionalei, boluntarioei, erabiltzaileei eta senideei, Zorionak!, behar haundiena duten pertsonekin duzun inplikazioari eta ahaleginari esker, Gipuzkoa eta Euskadi hobeago dugu.

***“Hurkoak begiak ireki zizkigun
mendekotasunaren aurretik esku
hartzeko, hauskortasuna indartzen
hasten den aurreko etapa horretan”***

35 urte jende zaurgarrienaren alde lanean

Maite Peña

Diputada de Cuidados y Políticas Sociales

Gipuzkoako pertsona zaurgarrien arretaren funtsezko zutabea izan da Hurkoa Fundazioa azken 35 urteotan. Gipuzkoako Elizbarrutiko Cáritasen ekimenez sortu zen erakundea, 1990ean, eta harrezkeroztik batez ere honetan jardun da: mendekotasunen bat duten edo babesik gabe dauden adinekoak, desgaitasuna edo gaixotasun mentalen bat dutenak zaintzen, babesten eta laguntzen.

Hiru hamarkada eta erdi hauetan, 6.000 lagunetik gora artatu ditu Hurkoak, eta 4.000 bat familiari eman die aholku; horrez gain, desgaitasun-prozedura judizialak zituzten 953 pertsonaren tutoretza edo kuradoretza hartu du bere gain. Bestalde, Donostiako Nuestra Señora de las Mercedes Egunko Zentroa kudeatu du, non mendekotasunen bat duten 2.500 bat lagun zaindu baititu.

COVID-19aren garaian, indartu egin zuen Hurkoak etxeko arreta, jarraipen presentzialak eta telefono bidezkoak eginez eta laguntza espezifiko eskainiz horren premia handiena zutenei. Etengabea izan da Hurkoaren ibilbidean arreta pertsonalizatua eta hurbilekoa.

Adinekoen aurkako tratu txarren kontrako sentsibilizazio-programak ere antolatu ditu Hurkoak, baita aisialdi- eta trebakuntza-saioak ere boluntarioentzat (855 boluntario ditu gaur egun Fundazioak). Zenbait erakundek aitortu dute erakundearen ikuspegi integrala eta gizatiarra, eta bereziki aipatzekoa da Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlana pertsona ardatz duen zaintza-eredu baten eraikitze ahaleginean.

Gipuzkoak aldatu egin nahi du bere zaintza-eredua —Gizarte Zaintza eta Politiken 2030 Agendaren baitan—, eta bestelako bat eraiki, integralagoa eta pertsonalizatuagoa, non funtsezkoak izango baitira Hurkoa eta gisa bereko beste zenbait erakunde. Hurkoarekin elkarlanean sortutako



Hauskor proiektuak, adibidez, zera du xede: hauskortasun-egoera jasaten duten adinekoak euren etxean artatzeko arreta-ereduak ezartzea.

Besteak beste, Etorkizuna Eraikiz ekimenean islatzen da zainketa berrikuntza eta humanizazioaren aldeko Hurkoaren jarrera. Zainketa-eredu komunitarioagoa eta norbanakoen beharrei gehiago erreparatzen diena sustatzen du aipatu ekimenak. Pertsona bakoitzak arreta egokia jaso dezan bermatzea du helburu ikuspegi horrek, betiere guztien duintasuna eta autonomia errespetatuz.

Hogeita hamabosgarren urteurren honetan, Gipuzkoako jende hauskorrenetik konpromisoa berretsi egiten du Hurkoak, baita gizartearen eta demografiaren desafio berrietara egokitzen ere. Bere lan nekaezinak eta pertsonarengan oinarritutako ikuspegiak erreferente izaten jarraitzen dute gizarte inklusiboago eta solidarioago baten eraikuntzan.